

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	9.347 biztanle
Zabalera:	60,81 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Ipar-mendebaldea (ikus mapa)
Udalerriak:	Altsasu, Ziordia, Olazti

2. Komunitatea eta osasuna

Altsasuko eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboil itxura du; 40tik 60 urte bitarteko biztanleak dira nagusi. Altsasukoa dago jaiotze tasa (%7,0) eta muturreko pobrezia arrisku tasa (6,1%) txikiak dituzten eskualde oinarrizkoen artean. Bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako emakumeen etxeen kopurua ere Nafarroako apalenetariko bat da (%43,7); egoera berean dauden gizonezkoena, berriz, batez bestekotik hurbil dago (%19,0).

Altsasukoa dago emaitza hobereak agertzen dituzten Nafarroako eskualde oinarrizkoen %25en artean 6 hilabetetan amagandik edoskitzen duten haurrei dagokionez (%71,1). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago haurren obesitateari dagokionez (%7,1), diabetesa duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%7,8), urteko kontrol erregistratua duten hipertentesiodunen portzentajeari dagokionez (%58,7) eta gizonezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (%79,2).

Nafarroa2000 zonifikazioan Altsasu Ipar-mendebaldeko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Ipar-mendebaldeari dagozkion adierazleak, bizimoduari, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetarik atereak. Ipar-mendebaldeko eskualde honetan, Pirinioei loturik gazteriari dagozkion adierazleak kalkulatzeko, emaitzarik hobereak agertzen dira gazteen sedentariismoari dagokionez (%16,0), gazteen eguneroko tabako kontsumoari dagokionez (%19,6) eta langabezia tasari dagokionez (%7,9). Kontrara, eskualdeko emaitzak okerrenak dira gazteen alkohol kontsumo intentsiboari dagokionez (%45,1).


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonen, komunitateen eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrikoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Eremu hauetako adierazleak: Ipar-mendebaldea (3, 4 eta 13) edo Ipar-mendebaldea + Pirinioak (10 - 12), Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduen, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleerako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); 2. Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; 3. 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; 4. Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; 5. Etxe guztien errentaren baturak pobrezia atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia atalasea, 2015ean: 5.150 €); 6. ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; 7 eta 8. Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; 9. 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren % 10. Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; 11. Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); 12. Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; 13. Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; 14 eta 15. Azken urtean ,talde hauetarikoren bateko 3 onzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 19,1 eta gizonezkoak 8,9); 16. Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score $\geq +2$); 17. 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 8,7); 18. 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaren neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; 19. Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; 20 eta 21. Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.